

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

**MATRIKULAZIOAREN AZTERKETA
ETA
ELAREN PROPOSAMEA**






Matrikulazioan beherakada nabarmena




Azken hiru urteetan Haurreskolak Partzuergoan matrikulazioek jaitsiera nabarmena izan dute. Lurraldeen artean ezberdintasunak dauden arren, bataz-beste %10 eta %20 artean jaitsi da matrikulazioa epe horretan. Datu hau bereziki kezkagarria da esaterako 2011 eta 2012 urteen artean jaiotzak %3,1eko beherakada izan dutela kontutan hartzen badugu. Hau da, matrikulazioaren beherakada jaiotzek izan dutena baina askoz ere handiagoa izaten ari da.

ELAren ustez horretan zeresan nabarmena du azken urte luzeetan Eusko Jaurlaritzak 0-2 urteko haurren hezkuntzarako garatzen duen politikak eta politika hauen eta krisiaren ondorioz beraien seme-alabak haurreskoletan matrikulazioa ezinezko izatea geroz eta familia gehiagori.

Gipuzkoako matrikulazioa






Bizkaiaiko matrikulazioa



Arabako matrikulazioa

(Gasteizko Udalak berak jasotzen ditu matrikulazio datuak eta datu guztiak lortzerik izan ez dugunez hauek Gasteizko matrikulazio datuak kontutan izan gabeko Arabako datuak dira)




Gasteiz: 2012 eta 2013ko maiatzeko datuak bakarrik ditugu. Hauek dira, hain zuzen ere, matrikulazio datu positibo bakarrak. Izan ere, Gasteizko haurreskoletan 2012an 0-1 urteko matrikula maiatzean 659 haurretakoa izan zen eta 2013 urteko maiatzean berriz 798koa.

Europatik urrun

Bi urte baino gutxiagoko ikasleak eskolaturik dauden ikastetxe publikoak, Haurreskolak Partzuergoan eta udal haurreskolak dira. %20,4ko estaldura dute, Europako batz bestekoa baino 8 puntu gutxiago eta Suediarekin alderatuz gero oso urrun.

Analisia zehatzagoa eginez gero, matrikula publikoaren urritasunik handiena duten eskola-guneak Bilbokoak eta Ezkerraldekoak dira. Bilboren kasuan, haurreskola berriak ireki diren arren, zortzi barrutietako lautan estaldura %10 baino txikiagoa da. Barakaldo, Trapaga eta Santurtziko udalerrietan ere egoera antzekoa da.



2.759 plaza bete gabe

2014ko Urtarrilaren 23ko daten arabera, Haurreskolak Partzuergoan 5.341 haur eskolatuak daude. Kontutan harturik 8.100 plaza eskaintzen direla, 2.759 plaza bete gabe gelditzen dira. Beraz garbi dago Europako estaldurara iristeko, plaza hauek betetzen hasi behar garela, eta horretarako Eusko Jaurlaritzak neurri zehatzak hartu behar ditu

Haurreskolak, unibertsalak, doakoak, euskaldunak eta kalitatekoak

EAEko 0-2 urteko estaldura hau, ez da harritzekoa Eusko Jaurlaritza eta Haurreskolak Partzuergoa hezkuntza tarte honetan garatzen ari diren politika ez-nahikoa eta krisiaren aitzakiatzat harturik langileriaren aurka hartzen ari diren neurri gogorrak.

Izan ere, krisi garai honetan, haurreskolan 5 ordutik gora matrikulaturik dauden haurren familiek batz-beste 208 € ordaindu behar izatea, ez dago edozein familiaren esku.

Gogoratu beharrean gaude gainera azken hamarkadetako datuen baitan, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza aurrekontuan herrialde garatuenek batz-beste bideratzen dutena baino 1,1 puntu gutxiago bideratzen dituela, hau da, proportzioan 733 milioi euro gutxiago, Europako herrialde garatuenengandik oso urrun. Eta abiapuntua hau izanik, aurtengo Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza aurrekontua 2009koa baino 63 milioi txikiagokoa dela.

Gure hezkuntza-sistemak hutsune handia dauka 0 eta 2 urteko tartean, eta murrizketek areagotu egin dute egoera. Gure herrian, oraindik ez dago bermatua 0-2 urte arteko haurren heziketa, eta unibertsala eta doakoa izatetik oso urruti dago. Baliabide gutxi

bideratzen da adin-tarte horretako hezkuntzarako, eta ez dira inondik ere nahikoa jendarte osoaren beharrei aurre egiteko eta benetako hezkuntza-proiektu bat garatzeko.

Azkenaldian, besteak beste haurreskolak itxi dira, lanpostuak galdu, ordezkapenak gutxitu, lan-kargak handitu eta soldatetan ere murrizketak eta izozteak inposatu dituzte.

ELAk ez du inolako murrizketarik onartzen. Are gutxiago, matrikulazio arazorik ez duten haurreskolak ixtea eta behar nabariak dauden arren lanpostuak murriztea.

Badaude alternatibak borondate politikorik badago eta 0-2 hezkuntzak, esan bezala, ez du inolako murrizketarik behar, guztiz bestela inbertsio askoz handiagoa, haurreskola gehiago, langile gehiago, lan baldintza hobeak eta baliabide gehiago behar ditu. Hori da, behin eta berriro, ELAk eskatzen duena eta eskaera horretan jarraituko du.

Modu zehatzagoan, haurreskolak zerbitzu publiko diren heinean, benetan unibertsal eta doakoak izan daitezen eta matrikulazioaren beherakada honi aurre egiteko,

zera proposatzen du ELAk:

Familiak ordaintzen dituzten kuotak berraztertzea eta familien diru sarrerekin bat etortzen den sistema egokiagoa aztertzea, errenta aitortpena kontuan hartuz:

2014. urtean familiaren diru sarrerak

	28.960€ errentaren azpitik dutenek	28.960,01tik 41.850€ bitartean	41.850,01€tik gora dutenek
2014.urtean	Kuota doan	Gaur egungo kuotaren %50a	Gaur egungo kuotaren %75
2015. urtean	Kuota doan	Kuota doan	Gaur egungo kuotaren %50a
2016.urtean	Kuota doan	Kuota doan	Kuota doan

AHT-ren kilometro erdi baten inbertsioa haurreskoletan egitea eskaten du ELAk

Kuota bidezko diru sarrerak urteko 12 miloi € inguru suposatzen dute. AHT-ren kilometro baten kostua 26 miloi €koa da aldiz. Hau da, AHT-n gastatzen den kilometro erdi baten inbertsioa haurreskoletan inbertitutako balitz, hauek doan izango lirateke. Ez al da posible hau egitea? Ez al dago dirurik honetarako? Ala falta dena borondate politikoa da?

2014ko Apirilaren 29an

Datuen iturria

- Haurreskolak Partzuergoak emandakoak
- Hezkuntza Euskadin 2.010.2012 txostena. Euskadiko Eskola kontseilua
- Hay alternativas. Propuestas para crear empleo y bienestar social en España. Vicenc Navarro, Juan Torres, Alberto Garzón.